

[a]

aztiker

Jendarte-ikerketa aplikatuak

OÑATIKO GAZTE LOKALEN EZAUGARRIAK ETA ERABILTZAILEEN ERABILERA ETA HARREMANEN INGURUKO PERTZEPZIOAK, 2014-2015

GALDETEGIEN EMAITZAK



Oñatiko Udala

1.

SARRERA

Txosten honetan Oñatiko udalaren enkarguz Oñatiko gazte lokaletan erabiltzaileei egindako inkestaren datuen emaitzak agertzen dira.

Inkesta honetan gazte lokaletako erabiltzaileen iritzi eta pertzepzioak eskatu zaie gazte lokalen fenomenoarekin lotutako gai eta aspektu desberdinen inguruan.

Neurketa hau 2014ko abenduaren 22tik 2015eko urtarrilaren 4a bitartean gauzatu da lokaletan egindako zuzeneko galdetegiak betez. Galdetegi hau bi inkestatzaileek burutu dute lokal guztietan.

Galdetegi hau Oñatiko Udalarekin aldeztu aurretik adostua izan da.

Txostenean zehar aurkituko ditugun atal nagusiak honakoak dira:

- ✓ Metodologia oharrak
- ✓ Ikerketaren emaitza nagusiak.

Galdetegia bitartez, besteak beste, honako gaien informazioa bildu eta iritziak jaso nahi izan ditugu:

- ✓ Alokairuaren ezaugarriak (prezioak eta lortzeko moduak)
- ✓ Lokalaren ezaugarriak (azpiegiturak eta baliabideak)
- ✓ Lokalaren osaera (kideak, adinak, sexua, ...)
- ✓ Lokal barruan burutzen diren jarduerak (motibazioak, arauak, ...)
- ✓ Lokaleko kideen harremanak fenomenoan eragina duten gainontzeko taldeekin (bizilagunak, jabeak, udal zerbitzuak, beste lokalak, gazte eragileak...)
- ✓ Oñatin abian jarri berri den partaidetzazko prozesuaren inguruko iritzia

2.

METODOLOGIA OHARRAK**DATU TEKNIKOAK (LABURPENA):**

Unibertsoa: Oñatiko Udalak identifikatuta dituen gazteen lokaletako erabiltzaileak

Lagina: 23 lokal

Landa-lana: galdetegiak 2014ko abenduaren 22 eta 2015eko urtarrilaren 4 bitartean egin dira. Elkarrizketa gehienak euskaraz egin dira. Egindako 23 elkarrizketetatik 1 gazteleraz egin da.

ERABILITAKO TEKNIKA: Lokalean aurrez aurreko galdetegi egituratua. Oñatiko lokaletako erabiltzaile izandako 2 gaztek egin dituzte inkestatzaile lanak.

GALDERA-SORTAK: Aztertu nahi genituen gaien inguruko galderekin osatu dugu galdera-sorta. Elkarrizketa gehienak euskaraz egin dira eta galdera-sorta euskaraz izan da. Elkarrizketetako bat gazteleraz izan da eta galderak itzuli dizkiete inkestatzaileek elkarrizketatuei.

LANDA-LANA: Inkestak 2014ko abenduaren 22 eta 2015eko urtarrilaren 4 bitartean egin ditugu, identifikatutako gazteen lokaletara bertaratuz (2 gazte erabiltzaile ibili dira inkestatzaile lanetan). Identifikatutako 24 lokaletatik 23k bete dute galdetegia. 23 galdetegi hauetatik 22 euskaraz erantzunak izan dira, eta bat gazteleraz.

3.

EMAITZAK**1 LOKALAREN ALOKAIRUA**


Inkestatutako lokalen prezioa kasuen %95,7a 200 eta 400€ artean kokatzen da. Lokal batek ordaintzen du 400 eta 600€ artean. Galdetegia burutu den lokalen artean ez da 200€ baina gutxiago edota 600€ baina gehiago ordaintzen duten kasurik aurkitu.

Alokairuaren prezioaren inguruan erabiltzaileek duten pertzepzioari dagokionez, inkestatuen %37,5ak uste du "merkealditxo"ren bat jasotzen dutela gazte lokalen ezaugarriengatik.

%16,7ak lokaletako alokairua garestiagoa dela dio eta beste %16,7ak pentsatzen du berdin ordaintzen dutela lokalaren alokairua, nagusientzat moduan.

1.- Zenbat ordaindu LOKALAGATIK?

	Maiztasuna	Ehunekoa
200€-400€	22	95,7
400€-600€	1	4,3
Guztira	23	100,0



2.- Gazteentzako alokairua nolakoa da?

	Maiztasuna	Ehunekoa
Garestiagoa da	4	16,7
Berdina da gazte eta nagusientzako	4	16,7
"Merkealditxo"ren bat egiten dute	9	37,5
Gazte izatea arazoa da	1	4,2
Ondo dago	1	4,2
Txikiago izateagatik merkeago	1	4,2
Guztira	24	100,0



Oinarria: 23

3.- Alokairua noren izenean?

	Maiztasuna	Ehunekoa
Lokaleko kide guztien izenean	3	13,0
Lokaleko kide baten izenean	7	30,4
Guraso baten izenean	3	13,0
Beste pertsona baten izenean	1	4,3
Ez dugu kontraturik	9	39,1
Guztira	23	100,0

Kasuen %43,4ean kontratua lokaleko kide bat edo kide guztien izenean dago, eta 13,0ak berriz, guraso baten izenean dagoela erantzun du. Guraso baten izenean dagoela erantzun duten 3 kasuetatik 2 adin txikiko gazteen lokaletako erabiltzaileak dira.

Inkestatutako lokalen %39,1ak adierazten du ez duela kontraturik, kasuetako 9 lokalek alegia.



4.- Lokala lortzeko modua/bidea

	Maiztasuna	Ehunekoak
Pertsona ezagun baten bidez	14	60,9
Taldeko pertsonaren batena zen	2	8,7
Iragarki baten bidez	4	17,4
Ahoz	1	4,3
Jabearengana zuzenean	2	8,7
Guztira	23	100,0

Oinarria: 23

Lokala lortzeko bidearen inguruan %60,9ak dio pertsona ezagun baten bidez lortu dutela lokala. Iragarki baten bidez lortu izan dutenak kasuen %17,4a dira.



5.- Zer bilaten zenuten lokal batean?

	Maiztasuna	Ehunekoak
Merkea izatea	19	82,6
Ondo kokatuta egotea	12	52,2
Ondo egokituta egotea	13	56,5
Intimitatea bermatuta izatea	8	34,8
Guztira	52	

Oinarria: 23. Erantzun anitzeko galdera

Lokal bat bilatzerako orduan lehentasuna merke izateari eskaintzen zaio, galdetegia bete dutenen % 82,4ak hori adierazten dute eta. %52,2ak adierazten du lokala ondo kokatuta egotea bilatzen duela eta %56,5ak lokala brrotik ondo egokituta egotea.


%34,8ak adierazi du intimitatea izateak ere garrantzia baduela lokala bilatzerako lehentasunen artean.



6.- Lokala lortzeko zailtasunik?

	Maiztasuna	Ehunekoak
Bai, gazteentzako zelako	5	22,7
Ez	15	68,2
Ardura zeinek hartu	1	4,5
Demanda handia eta lokal gutxi	1	4,5
Guztira	22	100,0

Oinarria: 23



Lokalen %68,2ak adierazi du lokala bilatzerako garaian zailtasunik ez duela topatu.

Zailtasunak izan dituztela inkestatutakoen %22,7a da.


Lokal bateko kideek zailtasuna lokalaren ardura kideen artean zeinek hartu izan zela adierazi dute.

2 LOKALAREN EZAUGARRIAK

7.- Lokalaren azalera

	Maiztasuna	Ehunekoak
50-80	12	54,5
30-50	6	27,3
100-130	3	13,6
80-100	1	4,5
Guztira	22	100,0
Batazbestekoa	75,55	

Oinarria: 23



Galdetutako lokalen bataz besteko azalera 75,55 m2koa da.

Oñatiko gazte lokalen gehiengoak (54,4ak hain zuzen) 50 eta 80 metro karratu artean dituela adierazten dute. 23 kasutatik 3k 40 metro karratutik beherako azalera duen lokala dute, eta beste hiruk berriz, 100 metro karratutik gorakoa.

8.- Lokaleko azpiegiturak

	Maiztasuna	Ehunekoak
Ura	13	56,5
Argindarra	23	100,0
Extintorea	13	56,5
Sukaldea	9	39,1
Leihoak	18	78,3
Komuna	15	65,2

Oinarria: 23

Lokaletako azpiegituren egoerari erreparatua lehenbiziko datua honakoa da: lo guztiek daukatela instalazio elektrikoa. Uraren kasuan lokalen %56,5ek daukate komuna lokaletako %65,2ak dauka.



Leihodun lokalak galdetutakoen %78,3a dira eta %56,5ek daukate extintorea. Sukaldea 9 lokalek daukate.

9.- Lokaleko baliabide-ekipamenduak

	Maiztasuna	Ehunekoak
Telebista	22	95,7
Ordenagailua	11	47,8
Play Station	18	78,3
Musika katea	17	73,9
Mahai jolasak	13	56,5

Oinarria: 23

Lokaletan dituzten ekipamenduen artean ere, gehiengoek gauza antzerakoak dituztela esan daiteke. Telebista 22 lokaletan dagoela (%95,7ean) aipatu da. Beste material ohikoenak Play Station-a eta musika entzuteko aparatuak ditugu, kasuen %78,3 eta %73,9an errepikatzen direlarik, hurrenez hurren. Besterik erantzun dutenen artean batzuk adierazi dute pin-pona eta dardoak daukatela. Lokal batean rokodromoa dagoela adierazten dute.



10.- Zer botatzen duzu faltan?

Lokalaren azpiegitura eta baliabideen baitan faltan botatzen dituzten gauzei buruz galdegin zaie inkestatuei eta komuna ez daukaten lokalek argi adierazten dute hori dela gabezi handiena.

Bestalde, aipatzekoa da ere 3 lokalek diotela instalazio elektrikoa hobetzea dutela erronka bezala.

	Maiztasuna
Komuna	8
Ondo daude	4
Elektrizitatea	3
Interneta	2
Lurra	2
Zapai bajua	2
Ura	2
Estufak	1
Leihoak	1
Aireazioa	1
Sofak	1
Insonorizazioa	1
Sukaldea	1
Ordenagailua	1

Oinarria: 23

11.- Gabeziak segurtasun aldetik

	Maiztasuna
Atea	8
Extintorea	5
Leihoak	2
Bainua	1
Intsonorizazioa	1
Zapaiak	1
Ondo dago	1

Oinarria: 23

Segurtasun ikuspegi batetik gabeziak ikusten dituzte galdekatuek lokaleko ateen egoeran. Lokalean extintorerik ez izatea bada gabezi aipatu bat ere.

12.- Nola hobetu erosotasuna eta segurtasuna?

	Maiztasuna
Atea errefortzatu	4
Extintoreak	2
Ur toma jarrita	2
Zerraila hobetu	2
Kableak txukundu	1
Sofak jarrita	1

Oinarria: 23

Aurreko taulak atea erreforzatzea dela lokaletako egoera hobetzeko elementu inportantea adierazten digu.

Orokorrean, lokaletako behar eta gabeziei dagokionez elementu hauen inguruan aurki ditzazkegu beharren gako nagusiak:

- **Atea eta zerraila erreforzatzea, egondako lapurreta desberdinengatik eragindua**

Eta lokalean ez daukaten instalazioen beharra aipatzen dute egoera horretan aurkitzen diren lokaletako kideek, nagusiki bi huen inguruan:

- **Ur toma izatea**
- **Komuna izatea**


3 LOKALAREN OSAERA

13.- Zenbat pertsona zaudete lokalean?

	Maiztasuna	Ehunekoak
20tik gora	9	40,9
10-20	12	54,5
10 baino gutxiago	1	4,5
Guztira	22	100,0

Oinarria: 23

Lokaleko kideen kopurua 10-20 lagun bitartean kokatzen da kasuen %54,9an. 20 lagun baina gehiagoz osatutako lokala kasuen %40,9en egoera dela adierazten dute.




14.- Erabiltzaileen adina

	Maiztasuna	Ehunekoak
15 eta 18 urte bitartekoak	6	26,1
18 eta 24 urte bitartekoak	10	43,5
25 urte baino gehiago	7	30,4
Guztira	23	100,0

Erabiltzaileen adinaren inguruko datuek heterogeneitatea erakusten digute.

18 eta 24 urte bitarteko erabiltzaileak baldin badira gehiengoa, kasuen %43,5a izanik, 25 urtetik gorakoek lokalak identifikatutako lokalen %30,4a dira.

15 eta 18 urte bitartekoek lokalen kasuen %26,1ekoak dira. 15 urtetik beherakoek ez dagoela adierazi behar da.




15.- Lokaletako osaera (GENEROA)

	Maiztasuna	Ehunekoak
Mutilak	406	93,1
Neskak	30	6,9
Guztira	436	100,0

Oinarria: 23

Genero ikuspegitik lokalen osaerari dagokionez datu oso aipagarriak aurkezten dizkigute emaitzek.

Erabiltzaileen %93,1a mutilak dira lokaletan. Datu honek gaur egun Oñatin fenomeno erabat maskulinoaz ari garela adierazten digu.

**16.- Lokal mistoak eta ez-mistoak (generoa)**

	Maiztasuna	Ehunekoak
Lokal ez-mistoak	22	95,7
Lokal mistoak	1	4,3
Guztira	23	100,0

Oinarria: 23

Mutilak izanik lokaletako kideen %93,1a, lokal gehienak (%95,7a) lokal ez-mistoak dira generoari dagokionean.

Lokal bat dago neska eta mutilez osatuta.

17.- Lokal misto eta ez-mistoen arteko desberdintasunak

	Maiztasuna
Garbitasuna (neskak garbiagoak)	7
Elkarrizketak	5
Gustu desberdinak	2
Ordena	2

Oinarria: 22

Lokal misto eta ez-mistoen artean erabiltzaileek ikusten dituzten desberdintasunen inguruan galdegin zaie erabiltzaileei eta askok adierazten dute desberdintasun handiena garbitasunean dagoela, alegia, neskek mutilak baino garbiagoak direla.

Desberdintasuna elkarrekin edo bananduta izaten dituzten elkarrizketetan dago, eta gustu desberdinak dauzkatela adierazten dute ere.

18.- Kuadrila berdinekoak edo desberdinekoak


Inkestatutako lokalen %73,9ak kuadrila berdinekoak diren kideetaz daude osatuta.

Lokalen %26,1a daude kuadrila desberdinen artean osatuta.

Kuadrila desberdinen artean lokala osatzearen arrazoia ekonomikoa da, gastuak murriztea alegia.

	Maiztasuna	Ehunekoak
Kuadrila berdinekoak	17	73,9
Kuadrila desberdinekoak	6	26,1
Guztira	23	100,0

Oinarria: 23

**19.- Zergatik elkartu zineten kuadrila desberdinetakoak?**

	Maiztasuna	Ehunekoak
Arrazoi ekonomikoengatik	8	100,0

4 BARNE JARDUERAK

20.- Lokala lortzeko motibazioak

	Maiztasuna
Hotza	13
Lagunak elkartzeko	5
Tabernen alternatiba	5
Egoteko lekua	4
Denon lekua	3
Espazio propioa	3
Lasaitasuna	1
Nahi duguna egiteko	1

Oinarria: 23

Lokala izatearen inguruko motibazioetatik galdetu zaie inkestatuei, zein ote zen euren arrazoi edo motibazioa lokala eskuratzerakoan hain zuzen.

Gehienek hotzari aurre egin eta lagunekin egoteko leku bat izatea aipatzen digute.

Tabernei alternatiba bezala ikusten dute batzuk lokala ere, tabernetako giroa eta uzten duten dirua murrizteko alternatiba bezala ikusten dute hauek.

21.- Zertarako erabiltzen duzue lokala?

	Maiztasuna
Lagunekin egon	10
Afaldu	8
Peliak ikusi	4
Hitz egin	4
Telebista ikusi	3
Denbora pasa	2
Erre	2
Kedadak	2
Partidak	1
Resakak	1
After	1
Bilerak	1
Animaliak zaindu	1

Oinarria: 23

Lokala zertarako erabiltzen duten galdegin zaie gazteei, eta gehienek lagunekin egoteko erabiltzen dutela adierazten dute.

Erabilera anitzeko espazioak direla ondoriozta daiteke erantzunak ikusita, izan ere afariak egin, peliak eta telebista ikusi eta lagunekin hitz egin dira gehien aipatutako jarduerak.


22.- Zenbat denbora ematen duzue lokala?

	Maiztasuna	Ehunekoak
Egunero	17	63,0
Astean 2 edo 3tan	3	11,1
Asteburutan nagusiki	7	25,9
Guztira	27	100,0

Oinarria: 23

Kasuen %63ak adierazten du lokala egunero erabiltzen dutela.

Aipatzekoa da ere kasu batzuetan eguneroko erabilera izanda ere inkestatuen %25,9ak esaten duela nagusiki asteburuetan erabiltzen dituztela lokalak.




23.- Antolaketa arauak

	Maiztasuna	Ehunekoak
Bai	21	95,5
Ez	1	4,5
Guztira	22	100,0

Oinarria: 23

Lokal gehienek, kasuen %95,5ak hain zuzen, barne arauak dituela adierazten du.



24.- Arauak zertarako?


	Maiztasuna	Ehunekoak
Garbiketa	18	41,9
Ekonomikoa- ordainketa	10	23,3
Atez ate	7	16,3
Arduradun batek dena	1	2,3
Erosketak	7	16,3
Guztira	43	100,0

Oinarria: 21

Arauak kasuen %41,9an garbiketa antolatzeko izaten dira.

Lokalaren ordainketa egiteko erantzundako lokalen %23,3ak dituztela arauak adierazten dute.

Inkestatuen %16,3ak adierazten du erosketak egiteko arauak dituztela.




25.- Erretzearekin araurik?

	Maiztasuna	Ehunekoak
Ezin da lokalean erre	1	4,5
Lokalean nahi duenak erretzen du	20	90,9
Txoko batean	1	4,5
Guztira	22	100,0

Oinarria: 23

Lokal barruan erretzeari dagokionez, erantzun duten 22 lokaletatik 20k lokalean nahi duenak erre dezakeela diote.

Lokal batean ezin dela erre adierazi dute, eta beste lokal batean txoko batean baino ezin da erre lokal barruan.




26.- Musika taldeak lokalean

	Maiztasuna	Ehunekoa
Bai, lokalean entsaiatzen dugu	1	4,5
Bai, beste lokal batean entsaiatzen dugu	14	63,6
Ez	7	31,8
Guztira	22	100,0

Oinarria: 23

Lokaletako %68,1ak musika taldeak dituztela adierazten du, hauetatik batek bakarrik entsaiatzendu bere lokalean. Gainontzekoak, 14k, beste lokal batean entsaiatzen dute. 531,8ak ez dauka musika talderik lokalean.




5 HARREMANAK

27.- Bizilagunak ezagutzen dituzue?

	Maiztasuna	Ehunekoak
Batzuk bistaz bai	8	34,8
Bai, eta batzuekin harremana	9	39,1
Ez	6	26,1
Guztira	23	100,0

Oinarria: 23

Bizilagunak ezagutzen ote dituzten galdegin zaie lokaletako erabiltzaileei, eta erantzunak nahiko parekatuak eman dira. Jasotako erantzunen %73,9k bizilagunak moduren batean edo bestean ezagutzen dituela aipatu du. Bizilagun batzuk bistaz ezagutzen dituztela diotenak %34,8a dira, eta %39,1ak berriz, batzuekin harremana ere badutela aipatu dute.



Bizilagunak ezagutzen ez dituztena kasuen %26,1a dira.


28.- Nolako harremana bizilagunekin?

	Maiztasuna	Ehunekoak
Ona	15	71,4
Txarra	1	4,8
Ez daukagu harremanik	5	23,8
Guztira	21	100,0

Oinarria: 23

Inkestaturen gehiengoak (%71,4a) bizilagunekin harreman ona duela adierazten du.


Bizilagunekin harreman txarra dutela lokaleko bateko kideek adierazten dute.



29.- Bizilagunekin arazorik izan duzue?

	Maiztasuna	Ehunekoak
Inoiz ez	15	68,2
Behin edo behin, garrantzirik gabe	3	13,6
Bai	1	4,5
Bai, udaltzainei deitu zieten	2	9,1
Bai, Ertzaintzarii deitu zieten	1	4,5
Guztira	22	100,0

Oinarria: 23



Bizilagunekin arazorik ez dituztela izan dituzte galdetegia bete duten gazteen %68,2ak adierazten du.

Arazoak izan dutela adierazten duten %31,8en artean, %13,6ak garrantzirik gabekoak izan direla baloratzen du.

Erantzun duten 22 lokaletako erabiltzeetatik 3 kasutan udaltzain edo Ertzaintza deitua izan da bizilagunen partetik.

30.- Zeintzuk izan dira arazoak bizilagunekin

	Maiztasuna	Ehunekoak
Aparkalekua	1	20,0
Soinua	4	80,0
Guztira	5	100,0

Oinarria: 7

Aurreko puntuan ikus daiteke bizilagunekin inoiz arazoren bat izan dutela erantzun dutenak guztira 7 kasu izan direla, eta horietatik 4k soinuagatik izandako arazoak aipatu dituzte. Ekarpenez gain jaso den beste kexa bakarra kotxeen aparkalekua dela eta izan da..

31.- Nola konpondu dituzue arazoak bizilagunekin?

	Maiztasuna	Ehunekoak
Jabea bizilagunekin hitz eginda	1	20,0
Kaleratu gintuzten	3	60,0
Musika kentzen	1	20,0
Guztira	5	100,0

Oinarria: 7

Bizilagunekin izandako arazoak 3 kasuetan gazteen kaleratzearekin bideratuak izan dira.


Kasu batean bizilagunekin hitz egin eta momentuan musika kenduta konponduta eta beste kasu batean jabea bizilagunekin hitz eginda.

32.- Jabearekin nolakoa da harremana?

	Maiztasuna	Ehunekoak
Ona	8	34,8
Harremana ordainketara mugatzen da	13	56,5
Ez dugu harremanik	2	8,7
Guztira	23	100,0

Oinarria: 23


Erantzundakoen %56,5ak jabearekin duten harremana alokairuaren ordainketara mugatzen dela adierazten du, eta %8,7ak harremanik ez duela dio. Gainontzeko erantzunek, kasuen %34,8k jabearekin harreman ona duela adierazten du.



33.- Nola bideratzen dituzue lokalaren konponketak?

	Maiztasuna	Ehunekoak
Jabearen esku utzita	6	26,1
Lana eta gastuak gure gain	16	69,6
Ez dugu konponketarik egin	1	4,3
Guztira	23	100,0

Oinarria: 23




34.- Udal zerbitzuekin harremanik

Lokal gehienek udaleko departamenturen batekin harremana izan dutela adierazten dute, 578,3ak zehazki.

Hauetako gehienak atez atekoaren ezarpenaren harira izan dituzte harremanak, eta beste 4 lokalek udaltzainekin harremandu dira.

	Maiztasuna	Ehunekoak
Bai	18	78,3
Ez	5	21,7
Guztira	23	100,0


Oinarria: 23



35.- Ze departamentukin izan duzue harremana?

	Maiztasuna	Ehunekoak
Udaltzainak	4	16,7
Atez ate	20	83,3
Guztira	24	100,0

Oinarria: 23


**36.- Beste lokalekin harremanak**

Lokal gehienek izan dituzte edo dituzte harremanak Oñatiko beste lokalekin.

Harreman hauek laguntasun harremanak dira kasu gehienetan, kasu batzuetan ondoko lokalekoak kideak direlako.

	Maiztasuna	Ehunekoak
Bai	22	95,7
Ez	1	4,3
Guztira	23	100,0


Oinarria: 23



37.- Beste lokalekin harremanen arrazoiak

	Maiztasuna	Ehunekoak
Afizioagatik	1	4,0
Ezagunak	1	4,0
Gelakideak	2	8,0
Kintakoak	1	4,0
Kirol harremanak	2	8,0
Konbibentzia	1	4,0
Lagunartekoa	13	52,0
Ondoko lokala	4	16,0
Guztira	25	100,0

Oinarria: 23




38.- Beste eragileekin harremanik duzue?

	Maiztasuna	Ehunekoak
Gaztetxea	13	52,0
Gaztelekua	2	8,0
Beste eragileren batekin	1	4,0
Ez	9	36,0
Guztira	25	100,0

Gazte lokalak ez diren bestelako eragileekin erabiltzaileek dituzten harremanengatik galdegin zaie eta %52ak harremanak Oñatiko gaztetxearekin dituela adierazi du.

Bi lokaletako kideak Gaztelekuaren daukate harremana. Lokal hauetako kideak adin txikikoak direla aipatzekoa da. %36ak, ordea, bestelako eragilerekin harremanik ez duela aipatzen du.




39.- Beste eragileekin harremantzeko gogorik?

	Maiztasuna	Ehunekoak
Gaztetxea	12	54,5
Ez	10	45,5
Guztira	22	100,0

Oinarria: 23

Galdera honetan beste eragileekin harremantzeko gogoaren inguruan galdetu zaie inkestatuei.

Kasu honetan inkestatuen %54,5ak adierazten du euren nahia dela Gaztetxearekin harremanak izatea. Galdetutakoen %45,5ak beste eragileekin harreman izateko interesik ez duela adierazi du.

**40.- Beste eragileekin nolako harremanak nahiko zenituzkete?**

	Maiztasuna
Kontzertuak	3
Bazkari-afariak egiteko	1
Gaztetxeko jarduerak	1
Mendi irteerak	1
Dokumentalak	1
Skateparking	1
Gimnasio urbano	1
Txosnatan	1

Oinarria: 23


Zerrenda honetan ikus dezakegu gaztetxearekin harremantzeko interesa adierazi dutenen artean nolako jarduerak garatzeko interesa duten.

6 PROZESU PARTE HARTZAILEAREKIKO JARRERAK

41.- Prozesuaren inguruko iritzia

	Maiztasuna	Ehunekoak
Positiboa	16	69,6
Beharrezkoa	3	13,0
Beharrezkoa baina berandu dator	2	8,7
Ez du ezertarako balio izango	2	8,7
Guztira	23	100,0

Oinarria: 23



Kasuen %69,9ek prozesu parte hartzailea modu positiboan baloratzen du. Beste %21,7k prozesua beharrezkoa dela dio. %8,7ak prozesuak ez duela ezertarako balio izango uste du.

Prozesua positiboa edota beharrezkoa dela esaten dutenen artean 10 lokaletako kideek prozesuaren beldur direla adierazten dute.

42.- Prozesuan parte hartzeko borondatea

	Maiztasuna	Ehunekoak
Bai	19	82,6
Ez	3	13,0
Ez du ezertarako balio	1	4,3
Guztira	23	100,0

Oinarria: 23

Aurreko galderari jarraiki, prozesu honetan parte hartzeko borondatearen inguruan galdetuta, %82,6ak baiezkoa erantzun du, %17,3ak bakarrik eman duelarik ezezkoa.

